

LEHENDAKARIAK DEBAGOIENAKO OSPITALEA BISITATU DU, JOINT COMMISSION-EN OSPE HANDIKO EGIAZTAGIRIA EUSKADIN LORTU DUEN LEHENA; ESI BEREKO OÑATIKO OSASUN ZENTROAK ERE LORTU DU LEHENBIZIKOZ

Debagoiena ESiko Lehen-mailako Arretan zein Espezializatuan diharduten profesionalekin batzartu da bertan Iñigo Urkullu, zoriondu ez ezik, pazientearen segurtasuna eta prozesu klinikoetako arriskuen murrizketa egiaztatzen dituen nazioarte-mailako agiria lortzeko burutu den prozesuaren berri jasotzeko

Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu, Osasuneko sailburu Jon Darpón, Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberria eta Debagoieneko ESiko zuzendari kudeatzaile Andoni Arcelay alboan zituela, **Debagoienako Ospitalean** izan da gaur goizean eta bertatik bertara ezagutu ahal izan du Joint Commission erakundearen nazioarte-mailako egiaztagiria lortzeko gauzatu den ebaluazio-prozesua.

Debagoienako ESlaren erreferentzia-ospitalea den zentro honetako profesionalekin izandako lan bileran, **Lehendakariak pertsonalki zoriondu ditu** eta eskerrak eman dizkie egunero egiten duten ahalegin eta lanarengatik. Gauza bera adierazi du, ESI honetan bertan kokatzen den **Oñatiko Lehen-mailako Arretako Unitateko langileei** buruz, eurek ere lortu baitute egiaztagiri bera eskuratzen duen lehen euskal osasun zentroa bilakatzea.

Bi kasuetan, hauxe azpimarratu du Urkullu Lehendakariak: **“Euskal Osasun Sistema Publikoaren kalitate zein segurtasun maila altua aitortzen duen nazioarteko agiri hau lortu ahal izateko giltzarria, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratua osatzen duten profesional guztien inplikazio sutsua izan da, zalantza izpirik gabe”**. Aipaturiko ESla da, izan ere, Eusko Jaurlaritzak hautaturikoa, ekimen hau abian jartzeko, gero Osakidetzako sare osora hedatzeko asmotan.

Gaur egun, **osasun-egiaztapenetan, munduan ez dago Joint Commisioneek adina esperientzia duenik**. 50 urtetik gora daramatza osasun-erakundeen eta erakunde soziosanitarioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeari emana. Gaur-gaurkoz, munduan 20.000 erakunde egiaztatu ditu, tartean, egiaztapena lortu berri duen Oñatiko Lehen-mailako Arretako Unitatea, nazioarte-mailako egiaztapena eskuratu duen Osakidetzako lehena; baita, esan bezala, Debagoieneko Ospitalea ere.

Egiaztapena emateko, **Jointek arretaren kalitatea eta pazientearen segurtasunari buruzko alderdiak, prozesu klinikoetako arriskuen murrizketa** eta kudeaketa dinamiko eta parte-hartzailean oinarritutako eredia **aztertu** ditu.

Zehazki, zerbitzuen eta arretaren kudeaketaz gain, honakoak ere aztertu ditu: **pazienteen identifikazio zuzena**, profesionalen **komunikazioaren eraginkortasuna**, **arrisku handiko medikazioaren gaineko segurtasuna**, osasun-arretari loturiko **infekzioen arriskuen murrizketa** edota pazienteen erorikoei loturiko **lesioen arriskuen murrizketa**. Guztiak ere pazientearen segurtasunari buruzko nazioarte-mailako helburuak dira.

Osasun Sailarentzat eta Osakidetzarentzat, kalitatea segurtasunean datza, baita arreta-prozesuen eraginkortasuna ere, eta, hala, 2013-2020 aldirako Osasun Planak zehaztutako jarduketara-ildo lehenetsietako bat da. **Osakidetzaren 2013-2016 aldirako Pazientearen Segurtasunerako Estrategiari** loturiko proiektuak garatuta, eta EAEko erakunde sanitarioetan arreta emandako pertsonen segurtasun-bermeen esparrua zehaztuen duen **pazienteen segurtasun-neurriei buruzko Dekretu** onartu berriak kontuan hartuta, Euskadi puntako eskualdeetako bat da European, adinako pazientearen onerako segurtasun-neurrien arloan.

Hori horrela, Osasun Sailak era koordinatuan eta sarean lan egiten jarraituko du, **Osakidetzako erakunde guztietan segurtasun-maila gorena** lortzera bideratutako jardunbide egokiak partekatzeko eta proiektuak gauzatzeko.

EL LEHENDAKARI VISITA EL HOSPITAL ALTO DEBA, PRIMERO DE OSAKIDETZA EN LOGRAR LA PRESTIGIOSA ACREDITACIÓN DE LA JOINT COMMISSION, CONCEDIDA TAMBIÉN POR PRIMERA VEZ A UN CENTRO DE SALUD VASCO, EL DE OÑATI, INTEGRADO EN LA MISMA OSI

Iñigo Urkullu se ha reunido allí esta mañana con profesionales de Atención Primaria y Atención Especializada de la OSI Debagoiena, para felicitarles por la distinción y conocer de primera mano el proceso que les ha valido este reconocimiento internacional que evalúa, entre otros, la calidad y la seguridad del paciente y la reducción de riesgos en los procesos clínicos

El Lehendakari del Gobierno Vasco, Iñigo Urkullu, acompañado por el Consejero de Salud, Jon Darpón, el Director General de Osakidetza, Jon Etxeberria y el Director gerente de la OSI Alto Deba, Andoni Arcelay, ha visitado esta mañana el **Hospital Alto Deba** para conocer de primera mano el proceso de evaluación llevado a cabo para la obtención de la acreditación internacional Joint Commission.

Durante el encuentro de trabajo que ha mantenido con los y las profesionales del centro hospitalario de referencia de la OSI Debagoiena, **el Lehendakari ha querido trasladarles personalmente su felicitación y agradecerles el esfuerzo y el trabajo que a diario realizan, palabras que ha hecho extensivas al personal de la Unidad de Atención Primaria de Oñati, perteneciente a esa misma OSI y que también se ha convertido en el primer centro de salud vasco en lograr esta prestigiosa acreditación.**

En ambos casos, el Lehendakari Urkullu ha destacado que **“la implicación entusiasta del conjunto de los y las profesionales de la Organización Sanitaria Integrada Alto Deba, donde el Gobierno Vasco ha ubicado la experiencia piloto y pionera, de cara a su posterior extensión a toda la Red de Osakidetza, ha sido el elemento clave para la consecución de este reconocimiento internacional que pone en valor las altas cotas de calidad y seguridad del Sistema Público Vasco de Salud”.**

La **Joint Commission** es a día de hoy la **organización con más experiencia en acreditación sanitaria de todo el mundo**. Lleva más de 50 años dedicada a la mejora de la calidad y la seguridad de las organizaciones sanitarias y socio sanitarias. En la actualidad acredita a cerca de 20.000 organizaciones a nivel mundial y entre ellas, recientemente, ha acreditado a la Unidad de Atención primaria de Oñati que se ha convertido en la primera unidad de Osakidetza que logra este reconocimiento internacional, del que también se ha hecho acreedor el Hospital Alto Deba.

Para otorgar esta importante acreditación la Joint Commission ha evaluado la **calidad asistencial** y los contenidos centrados en la **seguridad del paciente** y la **reducción de riesgos en los procesos clínicos** y el **modelo de gestión** dinámico y participativo.

Concretamente, además de la gestión de los servicios y la asistencia, han medido aspectos como la **correcta identificación de los y las pacientes**; la **efectividad de la comunicación** de los y las profesionales; la **seguridad de la medicación de alto riesgo**; la **reducción del riesgo de infecciones** asociadas a la atención sanitaria, o la **disminución del riesgo de lesiones** en los y las pacientes producidas por caídas, todos ellos objetivos internacionales en seguridad del paciente.

Para el **Departamento de salud y Osakidetza**, la seguridad es calidad y un pilar básico de la eficiencia en los procesos asistenciales; de ahí que esté considerada una línea prioritaria de actuación dentro del Plan de Salud 2013-2020. El desarrollo de proyectos enmarcados en la **Estrategia de Seguridad del Paciente 2013-2016 de Osakidetza** y el recientemente aprobado nuevo **Decreto sobre medidas de seguridad de las y los pacientes**, que establece el marco de garantías de seguridad de las personas que reciben asistencia sanitaria en las organizaciones sanitarias vascas, sitúan a **Euskadi a la cabeza de Europa en medidas de seguridad en beneficio del y la paciente**.

En este sentido, el objetivo del Departamento de salud es seguir trabajando de forma coordinada y en red, compartir buenas prácticas y desarrollar proyectos para conseguir el **máximo nivel de seguridad en todas las organizaciones de Osakidetza**.